

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
19/2008	R1/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

## **R 1/2010 ebazpena**

### **19/2008 espedientea**

Vitoria-Gasteizen, 2010eko abenduaren 20an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Fernando Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

## **ERABAKI DU**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Administrazioaren kontra aurkeztutako desadostasun arazoaren gainean. Eztabaidagaia da bi administrazioetako zeinek duen eskumena 1. ERAKUNDEAK erreklamaturako 2006ko BEZa itzultzeko. Izan ere, Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da auzi hori, 19/2008 zenbakidun espedientean.

## **I. AURREKARIAK**

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu zuen auzi hau, 2008ko maiatzaren 9ko idazkiaren bidez, eta hilabete horren 13an sartu zen idazki hori Arbitraje Batzorde honetan. Hona hemen, laburbilduta, idazki horretan azaldutako auziaren aurrekariak:

**1º.** ERAKUNDEAK (aurrerantzean, “erakundea”) bere egoitza soziala aldatu zuen 2006ko azaroan lurralde erkidetik Gipuzkoara. Orduz geroztik, Gipuzkoan ordaindu du Balio Erantsiaren gaineko Zerga, maiatzaren 13ko 12/2002 Legeak

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
19/2008	R1/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

onartutako estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunaren 27.Bat.Hirugarrena artikuluan eta 43.7. artikuluan xedatutakoaren arabera, orduko idazketari jarraiki.

**2º.** Egoitza soziala aldatu arren, erakundeak epe-barruan aurkeztu zuen, 2007ko urtarrilaren 30ean, 2006ko lehenengo hiru hiruhilekoei zegokien BEZaren urteko aitorpenaren laburpena (390 eredua) Zerga Administrazioaren Estatu Agentziaren (AEAT) aurrean. Horren emaitzari jarraiki, XXX euro itzuli behar zizkioten.

**3º.** AEATko Gipuzkoako Ordezkaritzako Zerga Kudeaketako Bulegoko buruak behin-behineko likidazioko akordio bat adostu zuen 2007ko abenduaren 20an, eta, horri jarraiki, ez zegoen inolako zenbatekorik itzuli beharrik. Aurkezpen-idazkiak zehazki laburbiltzen ditu akordio horrek jarraitzen dituen oinarri juridikoak:

**Lehena.** Erakunde aitortzaileak, 2005 ekitaldian 6.000.000 euroko eragiketabolumena gainditu ez duenez, bere zerga-egoitzari dagokion administrazioan soilik ordaindu beharko ditu zergak 2006ko ekitaldian, Ekonomia Ituneko 27.Bat.Hirugarrena artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

**Bigarrena.** Pertsona juridikoek helbidea aldatzen badute (Ekonomia Itunaren 43.7. artikuluan pertsona fisikoentzat xedatzen dena alderantziz aplikatuta), horrek berehala izaten ditu eraginak, eta, une horretatik aurrera, egoitza berriari dagokion administrazioan bete behar dira zerga-betebeharrak.

**Hirugarrena.** Ez 37/92 Legean, BEZari buruzkoan, ez eta 102/1992 Foru Dekretuan ere, BEZari buruzkoan, ez da adierazten egoitza lurralde erkidetik foru-lurraldera, edo alderantziz, aldatuz gero ekitaldia zatikatuko denik likidazioa zatikatzeko. Alderantziz, hiruhilekoko edo hileko aitorpen-likidazioak hartzen dira oinarri, eta urteko aitorpen-laburpen batean sartzen dira horiek (37/1992 Legearen 164.Bat.6 artikulua). Horri jarraiki, saldoa itzultzeko eskari bakar bat aurkez daiteke abenduaren 31n (37/1992 Legearen 115.Bat artikulua).

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
19/2008	R1/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

**Laugarrena.** Ekonomia Itunaren Legeak ez du eragozpenik jartzen konpentsatu beharreko saldoak administrazio batetik bestera aldatzeko, eta ez du adierazten egoitza lurralde erkidetik foru-lurraldera edo alderantziz aldatzeak utzitako lurraldean jarduera utzi dela eta lurralde berrian jarduera hasi dela esan nahi duenik.

**4º.** Erakundeak idazki bat aurkeztu zuen Gipuzkoako Foru Ogasunaren aurrean, 2008ko otsailaren 11n erregistratu zena. XXX euroko saldo negatiboa itzul ziezaiotela eskatzen zuen idazki horretan. Ukatu egin zioten eskaera hori, Ogasun eta Finantza Sailaren Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuaren buruaren 2008ko otsailaren 22ko akordioaren bidez. Izan ere, haren arabera, Ekonomia Itunak 27.1. artikuluko hirugarren idatz-zatian xedatzen duena aintzat hartuta, aurreko helbide fiskalean jasandako kuotak ezin dira lekualdatu BEZaren aitortpen-likidazioetan.

**5º.** Martxoaren 3ko 256/2008 Foru Aginduaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aitortu zuen ez zuela eskumenik erakundeak eskatutako zenbatekoa itzultzeko, eta Estatuko Administrazioak zuela horretarako eskumena. 2008ko martxoaren 14an helarazi zitzaion foru-agindu hori Estatuko Administrazioari.

**6º.** AEATren EAeko Ordezkarik Bereziak adierazi zuen, 2008ko apirilaren 17ko idazkiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumenik ez zuela adierazten zuen aitortpen hori ez zela egokia, BEZa zerga bakarra delako lurralde erkidean eta foru-lurraldean, eta ezin delako egitate zergapegarria zatikatu geografiari edo denborari dagokienez. Ekitaldiko azkeneko aldian soilik eska daiteke itzultzea. Egoitza aldatzeak eskumena aldatzen du, baina horrek ez du esan nahi ekitaldia zatikatu behar denik.

**7º.** 2008ko maiatzaren 6ko bilkuran hartutako akordioaren bidez, auzia Arbitraje Batzordeari azaltzea erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere aurkezpen-idazkian azaltzen du zer arrazoitan oinarritu den Arbitraje Batzordeari honako eskaera hau egiteko: “eman dezala

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
19/2008	R1/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

ebazpen bat adierazteko Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerga Administrazioak ez duela eskumenik 1. ERAKUNDEAK eskatutako 41.047,47 euroko saldo negatiboa itzultzeko, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2006ko aitorten-likidazioari (urteko aitorten-laburpenaren 390 eredua) dagokiona, itzultze hori eragin zuten BEZak jasandako garaietan Estatuko Administrazioak zuelako eskumena zerga hori ordainarazteko”.

2. 2008ko iraileko 12an egindako bilkuran, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen auzi hau izapidetzea onartzea, eta Estatuko Administrazioari jakinaraztea hori. Hain zuzen ere, 2008ko urriaren 3an eman zitzaion horren berri Estatuko Administrazioari.

3. AEATEk bere alegazioak aurkeztu zituen zuzendari nagusiaren 2008ko urriaren 30eko idazkiaren bidez, eta 2008ko azaroaren 3an sartu zen hori sarrera-erregistroan. Idazki horretan azaldutako egitate-aurrekariak Gipuzkoako Foru Aldundiak auziaren aurkezpen-idazkian azaldutakoak osatzen dituzte, honako datu hauekin:

1º. 2007ko urtarrilaren 24an emandako eskritura publikoei jarraiki, 2. ERAKUNDEAK 1. ERAKUNDEA eta 3. ERAKUNDEA sozietateak xurgatzen ditu. 2007ko otsailaren 9an erregistratu zen eskritura hori merkataritza-erregistroan.

2º. 2008ko apirilaren 14an, AEATren Gipuzkoako Ordezkaritzako Zerga Kudeaketako Bulegoak behin-behineko likidazio bat zehaztu zuen, eta, horri jarraiki, estatuari 2006ko lehenengo bi hiruhilekoetan emandako zenbatekoak itzuli ziren (guztira, YYY euro), horien berandutzako interesekin batera, eta laugarren hiruhilekoa (ZZZ euro) itzultzea ukatu zen.

4. Eskabidearen oinarri diren arrazoiak azaldu ondoren, AEATk eskaria egiten dio Arbitraje batzordeari honako hauek "ados ditzan:

- Gipuzkoako Foru Ogasunak mahaigaineratutako auzia ez onartzea, aurretiko akatsa dagoelako betebeharpekoaren eskarian, eta, ondorioz, eztabaidagaia galdu delako.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
19/2008	R1/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

- Aldiz, auzia onartzen bada, aurrez esandakoaren orde, hori ezestea, eta egoitza-aldaketa baliogabetzat jotzea. Horri jarraiki, aitor dezala estatuari dagokiola 2006 aldi osoari dagozkion zenbatekoak ordainaraztea betebeharrekoari. Estatuak edukiko du eskumena betebeharrekoak, bat-egitea dela eta, jasotako zerga-onuraren jatorria balioesteko (zergak ez ordaintzea bere ondare osoa merkatu-balioan eskualdatzeagatik). Era berean, sozietateen gaineko zergaren estatuko legedia bete beharko du horrek.

- Aurrez esandako eskari horiek betetzen ez baditu, horren orde, auzia ezestea, eta aitortzea Gipuzkoako Foru Aldundia dela zerga-administrazio eskuduna betebeharrekoak eskatutako 2006 ekitaldiko BEZa itzultzeko. Hala eta guztiz ere, dagozkion egiaztapenak egin ahal izango dira, zergen gaineko araudiak ezartzen dituen baldintza objektiboen eta formalen arabera kuota horiek deduzigarriak ote diren egiaztatzeko”.

5. Behin espedientea amaitutakoan, eta AEATri, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta erakunde interesdunari jakinarazitakoan, lehenak alegazioak aurkeztu zituen 2009ko martxoaren 2ko idazki baten bidez. Hurrengo egunean, hau da, martxoaren 3an, sartu zen idazkia Arbitraje Batzordearen erregistroan. Aldundiak ere alegazioak aurkeztu zituen 2009ko martxoaren 3ko eta martxoaren 4an erregistratutako idazki baten bidez. Erakunde zergadunak ez zuen alegaziorik aurkeztu, horretarako eskubidea bazuen ere.

## II. ZUZENBIDE-OINARRIAK

1. Auzi honen gai nagusia aztertu baino lehen, AEATk aurrez mahaigaineratzen dituenak hartu behar ditugu kontuan. Hasteko, erakundeak ez zeukan zergazko jarduteko gaitasunik AEATri BEZa itzultzeko eskaera egin zionean 2007ko urtarrilaren 30ean. Izan ere, une horretan deseginda zegoen xurgatzearen ondorioz.

Eragiketa hori otsailaren 9an erregistratu zen merkataritza-erregistroan, baina horren atzeraeraginezko ondorioak hori aurkeztu zen egunean hasten dira, hain

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
19/2008	R1/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

zuzen ere, urtarrilaren 24an. AEATren iritziz, zerga-betebeharpekoa deseginda egoteak esan nahi du hortik aurrera horrek egindako jarduerak ez direla baliozkoak.

Ezin dugu AEATren alegazio hori onartu bere ekintzekin kontraesanean dagoelako. Izan ere, 1. ERAKUNDEA xurgatu osteko ebazpen guztiak erakunde horri zuzendu zizkion, 2007ko abenduaren 20ko behin-behineko likidazioaren proposamenetik hasi, eta 2008ko apirilaren 14ko likidaziora arte. Era berean, erakunde horri igorri zion eskumenik ez zula adierazten zeun aitortpena 2008ko apirilaren 17an. 1. ERAKUNDE horri erreferentzia egin bazaio ere, eta administrazio-jarduerak erakunde horren izenean egin badira ere –hori baita BEZ eztabaidagarria sortu duena–, horrek ez du eraginik itzultze-eskubidearen titulartasunean; 1. ERAKUNDE horren ordez, 2. ERAKUNDEAK, erakunde xurgatzaileak, izango du eskubide hori, martxoaren 5eko 4/2004 Errege Dekretu Legegileak onartutako Sozietateen gaineko zergaren Legearen Testu Bategineko 90.1. artikuluari jarraiki, eta Gipuzkoako uztailaren 4ko Foru Arauaren, sozietateen gaineko zergari buruzkoaren, 97.1. artikuluari jarraiki.

Horrek ez du eraginik izango, ezta ere, erakundearen izenean, baina erakunde xurgatzaileak emandako ordezkatzeko-ahalmenarekin, jardun zutenean ahalmenetan (auzi honekin zerikusirik ez dauka horrek).

2. Auzi hau sorrarazi duen egoitza fiskalaren aldaketaren jatorriari egiten dio erreferentzia AEATk mahaigaineratutako aurretiko bigarren gaiak. Estatu-erakundearen iritziz, nahikoa arrazoi dago egoitza-aldaketa hori bidezkoa ez dela adierazteko, eta baieztapen horren oinarriak azaltzen ditu. Horri dagokionez ere, ez gatoz bat AEATrekin. Aurreko gaiak bezala, honako honek ere ez dauka zerikusirik auzi honekin, eta, beraz, ezin dugu horren gaineko erabakirik hartu oraingo honetan. Sarrera horrek ez du oinarririk Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiko 17.3. artikuluan. Artikulu horri jarraiki, bai eta Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 89. artikuluari jarraiki ere, Arbitraje Batzordeak espedienteko auzi guztiak ebatzi behar ditu, alderdiek edo interesdunek mahaigaineratuak izan badira edo ez badira ere.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
19/2008	R1/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

Baina erakundearen egoitza-aldaketaren jatorriari buruzko gaia ez da espedientean sortu, eta ez da beharrezkoa hori ebaztea auziaren xede den gaia ebazteko. Egoitza fiskalaren aldaketaren jatorriari dagokion gaia ere ez da kontuan hartuko prozedura honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazten duen eran, badagoelako gai hori ebazteko prozedura espezifiko bat, Ekonomia Itunaren 43.9. artikuluan jasotzen dena. Nola ez, dagokion prozeduran ebazten bada aldaketa hori ez zela bidezkoa izan, sozietateen gaineko zerga kudeatzeko eskumena mantenduko luke AEATk, xurgapenen araubide bereziaren aplikazioaren jatorria administrazio-bidetik ebazteko eskubidea barne (estatu-erakundeak horri egiten dio erreferentzia bere eskaeran).

**3.** Arbitraje Batzorde honek honakoa ebatzi behar du funtsean: zer erakundek duen eskumena erakundeak AEATri aurkeztutako eta 2006ko lehenengo hiru hiruhilekoei dagokien BEZaren urteko aitorten-laburpenean zehaztutako zenbatekoa itzultzeko. Hasiera batean, XXX eurokoa zen kopuru hori, baina 2008ko apirilaren 14ko behin-behineko likidazioari jarraiki, YYY eurokoa da. Edonola ere, Arbitraje Batzorde honek ez dauka erabakirik hartu beharrik itzuli beharreko zenbatekoaren gainean; eskudun suertatzen den erakundeak zehaztu beharko du hori ebazpen hau gauzatzeko.

**4.** Arbitraje Batzorde honek bi ebazpen eman ditu dagoeneko zehazteko nor duen BEZaren saldoak itzultzeko eskumena, egoitza bat aldatzeko unean (egoitza-aldaketa hori dela eta, beste administrazio batek kudeatuko du zerga) itzuli gabeko saldoak badaude; hain zuzen ere, R 11/2009 Ebazpena, 2009ko maiatzaren 5koa (18/2008 Espedientea), eta R 12/2009 Ebazpena, 2009ko ekainaren 19koa (20/2008 Espedientea). Bi ebazpen horien kontrako errekurtsioak aurkeztu zituen Estatuko Administrazio Orokorrak Auzitegi Gorenaren aurrean, eta, horrek ebatzi zituen errekurtsioak, 2010eko ekainaren 10eko (378/2009 errekurtsioa) eta 2010eko ekainaren 17ko (529/2009 errekurtsioa) epaietan, hurrenez hurren.

Beraz, badago jurisprudentzia-doktrina bat auzi honetan eztabaidatzen den gaiaren gainean, honela laburbildu dezakeguna. Epai horiek, funtsean, bat datoz Arbitraje Batzorde honek bere ebazpenetan mantendu duen tesiarekin, hau da, bai BEZaren

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
19/2008	R1/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

sistemak, bai eta Ekonomia Itunak ere, saldoak administrazio batetik bestera lekualdatzea eragozten duten ideiarekin. Honela azaltzen du aipatutako epaietako lehenengoak: “Subjektu pasibo batek egoitza fiskala lurralde jakin batean zuenean jasandako BEZaren kuotak lekualdatuko balitu bere egoitza fiskal berriari dagokion zerga-administrazioaren aurrean aurkeztutako aitorten-likidazioetara, horrek Ekonomia Itunean aurreikusitako "ordainarazteko" eskumena aldatuko luke, “ordainarazte” hori murriztu egingo litzatekeelako lehenago jasandako kuota-konpentsazioengatik. Gainera, zerga-betebeharpeko batek administrazio baten aurrean duen zerga-kreditua beste administrazio batera eramango balu, beste administrazio hori aberastuko litzateke lehenengo administrazioaren kaltetan, eta hori ez da bidezkoa; ondare-desitxuratzeak sortuko lituzke horrek, eta horiek ez datoz bat Ekonomia Itunaren oinarri den zerga-baliabideen bidezko banaketaren printzipioarekin” 3. 3. Z.O.

Epai horiei jarraiki, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren tesiarekin bat etorritik, BEZaren likidazio-aldia zatika daiteke egoitza aldatu bada, Ekonomia Itunaren 43.Zazpi artikulua, pertsona fisikoei buruzkoak, jasotako araua pertsona juridikoei aplikatuta. Arau horrek xedatzen du egoitza aldatzeak berehala izango dituela eraginak. Gainera, 27.Hirugarrena artikuluan zehaztutako lotura-puntuarekin lotzen dute irizpide hori, BEZaren arloko eskumenei buruzkoarekin.

Laburki azaldu ditugun arrazoiei jarraiki, sala epai-emaiak honako hau ondorioztatzen du:

“Esandakoa kontuan hartuta, Estatuko Administrazioak itzuli beharko du itzultzeko dagoen BEZaren saldoa, horrek baitzuen BEZa ordainarazteko ahalmena hori sortu zenean. Beraz, Estatuko Administrazioak itzuli beharko du erakundeak bere egoitza

Gipuzkoara lekualdatu zuenean itzultzeko zegoen BEZaren saldoa. Merkataritza-erakundeak itzultze-eskaera egin ahal izango dio AEATri, eta horrek onartu egin beharko du, eskatutako itzultzea zuzenbidearekin bat datorren edo ez egiaztatzen eskubidea izango badu ere. Guk hartutako erabakia ez dator guztiz bat, hitzez hitz, BEZa kudeatzeko prozeduren araudiarekin, baina, esan dugun eran, arlo horretan



<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
19/2008	R1/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

hutsune asko daudelako gertatzen da hori. Horrelako hutsunerik egongo ez balitz, auzi hau ez zen sortu izango.

“Egia esan, salaren 2010eko martxoaren 3ko epaiak (538/2009 zenbakidun errekurtsua) azpimarratzen duen eran, ezin da nahastu itzultze-eskubidea eskubide hori gauzatzearekin; desberdintasun horren ondorioz, prozedura-xahutasunean, eskumeneko arau orokorren arabera gauzatu beharko litzateke itzultze-eskubidea kasu honetan, eta, erakundearen egoitza Gipuzkoan dagoenez, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio hori, itzuli beharreko zenbatekoa AEATk jasango badu ere. Subjektu pasibo batek egoitza aldatzen badu, hasiera batean, Itunak ezartzen duen lotura-puntuaren arabera eskumena duen administrazioaren aurrean gauzatu behar da eskubidea, hau da, itzultzea eskatzen duen erakundearen egungo udalerrian. Baina, beste alde batetik, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren oinarrizko egiturak eta Itunaren hitzez hitzeko interpretazio batek ez dute onartzen saldoa Estatuko Administrazioetik foru-administrazio batera eramatea. Askoz ere errazagoa eta praktikoagoa da zergadunak AEATri aurkeztea eskabidea egoitza lurralde erkidean egon zeneko garaiari, hau da, 2006ko lehenengo hiru hiruhilabetekoei, dagokien BEZa itzultzeko”.

**5.** Beraz, azaldutako jurisprudenzia-dotrinak hala agintzen duelako, Arbitraje Batzordeak aitortzen du kasu honetan Estatuko Administrazioak itzuli beharko duela itzultzeko dagoen saldoa, saldo hori sortu zenean erakunde hori zelako BEZa ordainarazteko ahalmenaren titularra.

Beste alde batetik, 2010eko ekainaren 10eko epaiak ezartzen du zer prozedura jarraitu beharko den ebazpen hau gauzatzeko; hain zuzen ere, zergadunak itzultzea eskatzeko idazki bat aurkeztu beharko dio AEATri.

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak honako hau

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptu</i>
19/2008	R1/2010	20/12/2010	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa</i>

## ERABAKI DU

Aitortzea Estatuko Administrazioak duela eskumena 1. ERAKUNDEARI, edo zerga-  
eskubideetan eta -betebeharretan horren ondorengo den erakundeari, 2006ko  
lehenengo hiru hiruhilabetekoei dagokien saldoa itzultzeko, eta saldo hori  
egiaztatzeneko eskubidea duela.

Ebazpen hau betetzeko, adierazitako zenbatekoa itzultzeko eskaera aurkeztuko dio  
zergadunak AEATri.